



SEGUNDO MONTESI ONGIETORRIA EGIN DIOTE

Senidetze Eguna ospatu zuten atzo Zizurkilen; Segundo Montes Komunitatetik etorritako kideak izan ziren bertan >4

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-05-31

VII.URTEA 1.716.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Goian, Bedaion egin zuten ludotekaren inaugurazioaren una bat. Behean, Alegian halterofilia saioa. R. CALVO/A. IMAZ

KULTURA ETA KIROLA FESTA GIROA SORTZEKO TRESNA PAREGABEA

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Alegian, Bedaion, Albizturren eta Leitza, ekitaldi ugari izan zituzten atzo, Kultur eta Kirol Asteen baitan s

**Gaztetxo ugari
bateletan
ikusteko aukera
eman dute
Batelen
Topaketek**

TOLOSA Giro polita izan zen atzo goizean zehar Zerkausiaren inguruan 6

Diseinu
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
PUBLIZITATE GRAFIKAN
TITULAZIO OFIZIALA - IKASTETXE PUBLIKOIA - PRAKTIKAK LAN TOKIAN

Izen-emateak Ekainaren 30ak 9ra

IES Usandizaga-Polaflorida 8H
Felipe IV, 1A, 20011 Donostia
ussandizaga.arre@gmail.com
tel 943454366

EUROA HONKALAN
www.diseinu.com



Aranburu Jauregiko lorategietan izan zen ekitaldia. R. CALVO

«Tolosako biktimen omenezko» ekitaldi «hunkigarria»

TOLOSA Erakundeetako ordezkari ugari izan ziren; hitzaldi, musika eta poesiak osatu zuten ekitaldia 6

INAKI IRAZABALBEITIA
EUROPARAKO HAUTAGAIA

«Gauza garrantzitsu ugari erabakitzen dira European»

ALKIZA Irakurleen galderak erantzun ditu hautagaiak 7



I. GARCIA

DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak

ceinpro

TITULAZIO OFIZIALAK
Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA
WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es
INFORMAZIOA 943 310 873

Hertz Pasalekua 96 • 20006 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 876

Kirolaren inguruko hausnarketak



» Uzturretik

Andu Martinez de Rituerto

Martxoaren amaiera aldean Anconan (Italia) izan nintzen, beterranoen atletismoko Europako txapelketan froga konbinatuetan (atletismoa bete-betean: korrika, jauzi eta jaurti) parte hartzen; eta hara non, hirugarren suertatu nintzela, egindako lanaren sari noski, baina zorioneko usketabekoa baita ere. Hasierako

emozioak eta poza baretuta, hainbat ideia itzulituz hasi zizkidan. Nik ez nituen frogak espero bezain ondo egin, pozik gelditu nintzen baina hobetoxeago egin nezakeela pentsatuz; kontua da, txapelketetan ez garela bakarrik geure buruaren kontra lehiatzen, besteen kontra ere aritzen gara, eta lehia horretan berriz, pentsa baino askoz ere hobeto gelditu nintzen, parte-hartzaileen artean hamargarren markarekin aurkeztu, eta... hirugarren! Eta zorionez niretzat, eta zoritxarrez laugarren gelditu zenarentzat, gure gizartearen noizbait erabaki zen hainbat kirolaren gloria gutzia lehenengo hirurak eramango zutela. Hala beharko du, baino ez zait oso bidezkoa iruditzen, azken fikonean, irabaztea edo zazpigarren

gelditzea, aldagai askoren baitan dagoelako: prestakuntzarekin asmatu izana eta lehiaketa egunerako ahalmenak mailarik gorenera iristea, lesiorik ez izatea, ez gaixotzea, frogak behar bezala egiteko suertea izatea, arbitroek kalerik ez egitea eta nola ez, ditugun lehiakideek emango duten maila!

Lehiaketa batean lortuko dugun postua beraz gure kontrolpetik kanpo dauden aldagaien menpe dago. Eta zer dago kirolariaren esku? Lana ahalik eta hobekien egitea saiatzea eta zaintzea. Horregatik pentsatzen dut kirolari batek behar bezalako esfortzua eta lana egin badu, lortuko duen postua edozein dela ere, bere lana aintzat hartu behar dela.

Batek baino gehiagok zer demontre idazten ari ote naizen pen-

tsatzen arituko zarete; kirolean helburua irabaztea da eta! Bai, goimailako kirolean hala da (dena den, elitean ere, irabaztera eramango gaituen bidea, lanean eta hobetzeko ahaleginean oinarrituta egon behar du). Baina, gutako zenbatek egiten du goimailako kirola? Noizbait pentsatu duzue zer bilatzen duzuen kirola egiterakoan edo zer nahi duzuen zuen seme-alabentzat kirolen batean izena ematen dutenean? Norberak bere erantzuna topatu beharko du baina nik atzera begiratzen dudanean eta kirolak eman didana erreparatzen dudanean, irabazitako partidua, igotako mendiak, eskalutako bideak edo irabazitako dominen gainetik, egin ditudan lagunak daude lehendabizi, bizitako esperientziak eta barneratutako baloreak (esfortzua, ahalegina, errespetua...) ondoren, gozatu dudana gutzia ere aurre-aurrean behar du, bizimodu aktiboa eta osa-

suntsua jarraian eta agian, zerrenda honetan, hemen nonbait azalduko lirake kirolorpenak. Kirola egiten dugunean beraz, irabaztea al da garrantzitsua?

Bukatzeke, kirolaren inguruko hainbat galdera aierera botako ditut. Nahi duenak harrapa ditzala: Zergatik entzuten dira askotan aurkarietako biraokak eta mota guztietako astakeriak gure taldearentzako animoak baino gehiago? Gurea gorestea eta gutarrei animoak ematea ez al da nahikoa? Zergatik uzten zaie ereduia izan beharko luketen kirolari horren portaera zatarrak izaten? Zergatik jakin behar dugu ez dakit zein taldeetako futbol jokalariekin katarroaren berri eta ez Maider Mendizabal anoetarrari Espainiako Kiroltako Goi Kontseiluak kirol merituaren brontzezko domina eman ziola pilotan egindako ibilbide oparoarengatik (munduko txapelak...)? Zergatik?

A Argazki zaharra



Begirada bat garai bateko Bedaio auzoari

GIZARTEA • Herenegun aurkeztu zuten Bedaioko gida turistikoa. Auzoaren kokagunea, historia, baserrien inguruko informazioa, inguruko mendien xehetasunak, egin daitezkeen ibilbideak eta abar luze bat ikus daiteke bertan. Esaterako, ezkerrean azaltzen den Zugastibarrera baserriaren inguruko informazioa dakar: Bedaioko lehen eraikinetako bat da, antzina-ko baserrien arkitektura tradizionala duena. Eskuinean, berriz, Elozegi familia morroi eta

maizterrekin inguratutako Bedaio agertzen zaizkigu. Gidan irakur dezakegunez, denbora luzean auzoaren lurra eta baserriak jauntxoek jabeago izan ziren, eta baserriak maizter. 1554ean Tolosako auzo bilakatu aurretik, jabeen baldintzapean bizi ziren. Hasieran, Juan Martinez Berastegi zen Bedaioko jabe, eta geroago, urte askoan, bere ondorengoak. 1900. urtean, berriz, Elozegi eta Alustiza familiena izan zen Bedaio. **ARTUBELKARTEA**, TOLOSAKO ULDA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Eguraldiak lagunduriko azoka egun polita atzokoa

PABLO ALBERDI

Azoko azoka eguna oso giro onean ospatu zen. Eguraldia lagun zela, asko izan ziren kalera irten ziren beraien erosketak eta bueltaxka egitera. Udaletxeak antolatutako egun berezia ere asko lagundu zuen giroa berotzen, eta azkenean egun borobila bizi genuela esan genezake.

Eskaerak ere ez zen makala izan, eta barazkien artean ere ikusi genituen nobedadeak. Baba, illarra edo patata berrien ondoan, azalorak eta porru berriak ikusi ahal genituen.

Perretxikoen postuetan ere nobedadeak izan ziren. Gibelurdinak eta ziza horiak berrikuntza bezela, eta bertako onddoak eta zizak ere ikusi genituen.

Aipatzekoa ere, datorren astean Enrique Fleischman sukaldari mexikarra izango dugula gurean, pintxo batzuk prestatzeko asmoz, hau guztia slow food mugimenduan gainean antolatutako egunean.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merka	Gares.
Landareak		
Alegria	1,20	-
Erromeroa	4,00	6,00
Klabeledina	6,00	-
Xarbot	4,00	6,00
Geranioa	2,00	-
Salbia	1,00	1,20

» BERTAKO PRODUKTUAK

Fruta		
Errezil sagarra	0,60	5,00
Intxaurrea	2,50	4,00
Urra	2,00	3,00

» Perretxikoak

Ziza horia	26,00	-
Onddo	24,00	32,00
Gibelurdina	30,00	-

» Barazkiak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	3,00	-
Porrua	1,00	3,00
Babarrun zuria	8,00	-
Patata	1,00	1,50

» Bestek

Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Arraultzak	2,50	-
Artisau ogia	2,80	3,70
Irasagarra	3,00	6,00

» Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardigazta	14,00	24,00

» PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baratxuria	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00

Egoera lehengoa baino txarragoa da

» Iritzia

Saad Malec Subeir
Jatorkin elkarte

Denbora gutxian Euskal Herria izaera emigrantea izateko herri hartzaile izatera pasa da. Bilakaera horretan Magrebetik datozen pertsonak nabarmen ziren bai kopuruarengatik, bai eta euren ezaugarri kulturalengatik, hizkuntza eta erlijioarengatik, besteak beste.

Egia da, baita ere, Euskal Herria denbora gutxian herri kooperante, solidario bat izateko xenofobiaren hazia hazten ari den herria izatera pasatzen ari dela. Argi esan daiteke, euskal gizartearen arrazakeria areagotuz doala. Erakundeek zeresan handia dute honetan guztitan, batez ere, Diputazioek, adintxikikoen zentroak kudeatzeko duten moduarengatik. Eta, baita udaletxeek ere, etorkinen hiriratasun eskubidea jorratzeko duten moduarengatik (errolda eskubi-

dea, esaterako). Tolosako Udalak etorkinen oinarritzko eskubidea urratzen du, erroldatzea zailtzen baitu eta gainera, bi urtez behin hau berritzea eskatzen du (beste Udalek ez dute hau aplikatzen).

Kulturartekotasunaren kontzeptua zaharkitua dago gizarte edo herri hartzaile maila gogor edo gordinenera igarotzen denean, hau da, etorkinari kultura desberdineko pertsona bati bezala begiratu ordez, arazo eta gatazken errudun edo sortzaile bezala begiratzen zaionean. Egoera honen aurrean, salaketen fase batera pasa behar dugu, eta horretaz gain, ardurak eskatu hau guztia, era batera edo bestera sortu, bultzatu duten erakundeak, utzikieria eta bazterkeria oinarrituriko adintxikiko haurren etorkinenganako politikengatik.

Izaera folklorikoa eta kulturantza duten jarduerak, lau herrialde desberdineko adingabeak, bat azal beltzkoa, bestea horikoa eta beste beltzarana, mahai batean bil-

tzea erakundeak soilik balio dien propaganda ekintza.

Baina errealitatea bestelakoa da: gure herriko eta Donostiko Alde Zaharreko jende ugari nazkatuta dago, lehertzean. Eta beren eskubidean daude, adingabe askok duten jarrera konfliktiboa ikusita. Ez naiz egiten duzuna eginda ere lana kentzen diozun inbaditzaile bezala ikusten zaituzten horietaz ari; orain arte errespetuzko jarrera solidarioa izan dutenaz baizik.

Erakundeek immigrazio planarekin, etorkinen kolektiboa integraturik ikusi nahi dute, eta gizartearen baloreetara errespetua eskatzen dute, baina gauzak kudeatzeko duten moduarengatik kontrakoa lortzen ari dira. Triste da esatea, baina horrela da.

Magrebtar gehienak (ez %100, baina ia) galduta dute euren ganako konfiantza, ziur baitaude Tolosan edota Donostiako Alde Zaharrean bizi den egoera, alde aurretik prestatutakoak dela; magrebtar aurkakako giroa eta etorkinen aurkakoa,

oro har, erakundeentzat soilik baliagarria.

Ez dugu ondo ulertzen zer egiten duen Diputazioak: adingabeen multzo bat kalean uzten du, edo zentroa (Debako zentroa, esaterako, baliabide faltarengatik edota beteta dagoelako) uztera bultzatzen dituzte eta etorkin adingabe hauen jarrerak alarma pizten du gizartearen, eta aldi berean, Diputazioak dirua jartzen du gizarte sentsibilizatzeko, bozlagun baino gehiago joaten ez diren hitzaldiak antolatuz.

Tolosan bi mahai biltzen dira hilean: bata immigrazioarena (duela bost urte hasi ziren biltzen) eta bestea adingabeena (zentroaren harira sorturikoa). Elkarte edota erakunde pribatu eta publikoak biltzen dira bertan, immigrazio teknikariak koordinatuta. Jatorrietik eraginkortasun txikia ikusten diegu bilera horiei. Egoera txar batetik okerrago batera pasa gara. Gaur egun immigraanteen egoera lehen baino txarragoa da.

Krisi-aniztasunaren eguna

» Iritzia

Miren Ceberio
Ereite Elkarte Multikulturala

Maiatzaren 21a egun sonatua izan da aurtengoan: greba orokorrerako deialdia izan dugu murgilduta gauden krisiaren aurrean emandako erantzun gisa. Ez dira ez, batere garai samurrak. Inguruan gero eta jende gehiago ikusten dugu lanik gabe geratzen eta gutxi batzuek sortutako egoera petrala pairatzen. Eta jakina da kolektibo batzuek betiere besteek baino gehiago pairatzen dituztela edozein krisiren ondorioak.

Izan ere, lanarekin batera gero eta gehiago dira paperak ere galduten dituztenak. Eta ez gara gaztelaniazko esamoldearen zentzuan ari, nahiz eta, jakina, bat baino gehiago bere onetik aterako den egoeraren aurrean. Ez, zentzu literalean ari gara: eguna joan eta egu-

na etorri, lanik gabe geratzen den pertsona gehiagorekin topo egiten dugu geure inguruan. Eta etorkin askoren kasuan, honek paperen, hau da, hainbeste nekez eskuratutako egoera erregularraren galtzea ekarriko du, bere ondorio guztiekin.

Segur aski, inor gutxi izango zuen gogoan maiatzaren 21a Kultura Aniztasunaren Nazioarteko Eguna ere badela. Ospakizunerako tarte gutxi, aurtengoan. Atzerriar Legeak egoera administratibo-

en aniztasuna ere sortarazten du: paperak dituzten atzerriarrek daude, atzeritar komunitarioak, berriz elkartuak, eta abar. Azken mailan, "ilegalak" daude; kontzeptua zuzentzat hartzeko ordea, zenbait pertsonaren jaiotza ilegalizat hartu beharko genuke, hori baita pertsona bati ilegal deitzeko aitzakia posible bakarra. Baina ez ditzagun ideiak eman...

Eta egoera honetan aurkituko ditugu gero eta gehiago nahiz eta lanean gogor ihardun izan, nahiz

eta langabezia-saria kobratzeko eskubidea izan; paperak berritzea gutxieneko kotizazioa eta urtebeteko lan-eskaintza eskatuko baitzaizkie. Bizitzen ari garen momentuan, urtebeteko kontratu batek zientzia fikzioan pentsatzea errazago eramango gaitu. Eta eguna joan eta eguna etorri, ikusten ditugu erortzen, etsitzen, berriro ere klandestinitatean jaustearrekin batera.

Pentsa dezakegu greba eguna hautatu zutenek ez zutela Kultura Aniztasunaren Eguna berri, edo ez zutela, behintzat, honi protagonismoa kentzeko propio hautatu aldarrikapen egun hau. Kontua da, aniztasunaren ospakizunerako eguna krisiaren aurreko aldarrikapen eguna bihurtu zela. Kasualitate esanguratsua suertatu zaigu, beraz, aurtengoan: Kultura Aniztasunaren Eguna, Krisi Aniztasunaren eguna bihurtu zaigu.





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

BERRI ON BAT DUGU
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

TOLOSALDEAN
Zerbitzu
Ofizial Berria
BSH Taldeko
Markentzat

Interservice
Ubarburu pasealekua, 81-
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

Interservice
Servicio Oficial de Clientes

Zizurkilen Segundo Montesekiko senidetze jaia

Elkartasuna » Mercedes Ventura iraultzaileari omenaldia egin zioten atzo Senidetze Egunaren barnean.

ASIERIMAZ

Aiztondo bailarak ongietorria eman zien atzo Segundo Montes komunitateko ordezkari. Zizurkilen Senidetze Eguna ospatu zuten eta El Salvadorretik Mauricio Geovani eta Ana Delia etorri ziren.

Egun osoan zehar amerikarrek hainbat ekitalditan hartu zuten parte, horien artean, Mercedes Ventura iraultzaile salbortarrari egin zitzaion omenaldi xumea aipatu behar da.

Ongietorria eta omenaldia

Bero handia egiten zuen Zizurkilen atzo eguerdian. Segundo Montes Komunitateko Mauricio Geo-

vanirentzat ordea «fresko» zegoen, izan ere, euren lurraldean 35 gradutik gorako tenperatura egiten baitu.

Eguraldiaz gain, ongietorria ere beroa izan zen. Une guztian gogoa izan zuten Mercedes Ventura, iaz auto istripuz hil zen kide salbortarra.

«Hasiera besterik ez da»

Zizurkilen ospatu zen Senidetze Eguna hasiera besterik ez zela aipatu zuten udaletako kideek. Hurrengo urtean Adunak hartuko du Zizurkilen lekukoa, bertan egingo baita bi lurraldeen arteko ospakizuna.

Ongietorria eta omenaldiaren ondoren, talo janaz, bazkariak, herri kirolek eta bertso afariak gozatu zuten Zizurkilen bildutakoek. Afariko txartelarekin, Segundo Montes Komunitateko haurreskoletan baratzak sortzeko proiektua bultzatu zuten.



Aiztondoko udaletako kideek ongietorri beroa eskaini zieten Segundo Montes Komunitateko ordezkari. ASIERIMAZ



'zazpitantriangulon.com' topalekua

TOLOSA » Aste honetan zazpitantriangulon.com webgune berria aurkeztu dute. Tolosako Udaleko Gazte Sailak sortutako orrialdea da eta bertan herrian egiten diren ekitaldi eta albiste desberdinen informazioa bildu dute. Web orrialdea aurkezteko ekitaldi desberdinak egin dituzte aste honetan zehar, baina eguraldia

dela-eta batzuk bertan behera geratu dira. Ostiralean, hala ere, gazte topaguneko gazteek Trianguloan marraztutako trianguloan egin zuten zita eta atzo, Trianguloan bertan, webgunearen spota ikusteko aukera izan zen bertan jarritako pantaila erraldoian. Spotak astean zehar grabatutako irudiak biltzen ditu. E. EZERZA



NZ

nasaretzentroa

Abdikoa, 34 - 3^{er} Ego
30012 DONOSTIA
Tel. 943 336664
Fax. 943 336384
nasaret@nasaretzentroa.com
www.nasaretzentroa.com

MATRIKULA IREKIA

BATXILERGOA
Ekainaren 29tik Uztailaren 3rarte

LANBIDE ZIKLOAK
AURREMATRIKULA
Ekainaren 1etik Uztailaren 12rarte
MATRIKULA
Ekainaren 29tik Uztailaren 3rarte

Batxilergoa	Lanbide Zikloak	
<ul style="list-style-type: none"> Zientziak eta Teknologia Natura eta Osasun Zientziak 	Goi Mailako Zikloak <ul style="list-style-type: none"> Administrazioa eta Finantzak Informatika Sistemaren Administrazioa Nazioarteko Merkataritza Idazkaritza 	Ziklo Errotinok <ul style="list-style-type: none"> Administrazio-Kudeaketa

KUTXA Lanbide Zikloko Gizarte Biltza

Kultura eta kirola bizi-bizirik eskualdeetan

Aisia » Leitzan gaur Artisau Azoka ospatuko dute 11:00etatik aurrera. Ordu berean Alegian gynkana egingo dute.

ASIER IMAZ

Leitzan, Alegian, Albizturren eta Bedaion kirol eta kultur asteak ospatzen ari dira. Lau herritan atzokoan eguraldi bikaina izan zuten, jendearen erantzuna bezala.

Kultura eta kirola ikusgai

Kultur ekitaldien barnean bazkaria azpimarratu zuten albizturtarrek atzokoan. «110 lagun inguru elkartu gara. 14 kilo arroz eta 18 oilasko prestatu ditugu eta giro ederra eduki dugu frontoian».

Leitzan gaur amaituko da XXXI. Kultur Astea, ohi bezala Artisau Azokarekin. 11:00etan hasiko da jai Leitzan.

Bedaion Asteburu Kulturalean ospatzen ari dira. Atzokoan Ludote-




Iragan larunbatean bezala, atzokoan graffiti tailerra egin zuten igerilekuan. A.I.



Paella jana egin zuten 110 lagunek Albizturren. ESTI EZEIZA

ka estreinatu zuten, bertan izan ziren besteak beste Aimar Irigoien eta Abel Barriola. Txolarre Irratiak zuzenean aritu zen

Alegian, V. Kirol Astea, halterofilia, harri-jasotzaileak, ... egon ziren atzo, besteak beste. Gaur, azken egunean, gynkana ospatuko dute 11:00etan.



Aimar Irigoien Alegian egon zen goizean, arratsaldean berriz Bedaioara joan zen, Ludoteka inagurazioara. REBEKA CALVO



Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dut. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 616 542 960 telefonora.

■ **Etxebizitza.** Intzan (Nafarroa) herriko plazan 300 u rteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreneitzakoa modu onean salgai. Ezinduentzako egokitua. Aralarko magalean

landetxea jartzeko aukerarekin. Harremanetarako telefonoak: 628 030 727 / 609 218 341 / 646 111 485. Posta elektronikoa estanga_intz@hotmail.com.

■ **Lokala.** Iruran lokala salgai (120 metro koadro). Zatitu daiteke. Bi sarrera independente ditu eta N-1etik gertu dago. Oso aproposa hainbat erabiletarako. Deitu 943 36 26 16 telefonora.



20 URTE ZUEN ZERBITZURA!

ORAIN...

Eskolapiotako Lorategiak Iean
Tolosa • 943 67 45 26

arantzazu

bila dabilzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur
uste duzuna baino gehiago da

www.arantzazu.org

aldaketa
POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE

bozkatu
www.iniciativainternacionalista.org

iniciativa
INTERNACIONALISTA

gaur

- **DONOSTIA** Propaganda banaketa Alde Zaharran
- **ATAUN** Mendi irteera 11:00 Zeharaiatik-San Martinera
- **TUTERA** Ekitaldia 13:00 San Jaime plazan
- **LASARTE** Ekitaldia 12:00 Okendo plazan

bihar

- **GERNIKA** Ekitaldia 20:00 Lizeo antzokian
- **TAFALLA** Ekitaldia 19:30 Kultur etxean

etzi

- **ZARAUZ** Ekitaldia 19:00 Frontoi zineman
- **PASAI ANTZO** Propaganda banaketa 19:00 Zumardian
- **GETXO** Ekitaldia 19:30 Algortako Telletxen
- **GASTEIZ** Kotxe karabana 18:30 Mendizabalako aparkalekutik

EKAINAK 4 OSTEGUNA - BILLABONA
Ekitaldi kulturala 18:00 Gurea aretoan

SPOT
ELEKTORALAK

ekainak 1
astelehena
9:00 **ETB 1**

ekainak 2
asteartsa
10:30 **ETB 2**

ekainak 4
osteguna
10:30 **ETB 2**



Bukatu dira herriko festak

TXARAMA » Atzo bukatu zituzten Txaramako jaiak. Ostiralean bota zuten jaietako hasiera emateko suzeria eta atzokoa izan zen egun nagusia. Goizean Leaburu-Txaramako dantzari gazteen dantza saioa izan zen eta gero

hasi zen Toka Txapelketa. Behin txapelketa sariak banatuta Pintxo Lehiaketa egin zuten eta arratsaldean haurrentzako zein helduentzako jokoak izan zituzten eta jaiak herri afariarekin amaitu zituzten. **R. CALVO**



Zaldi lasterketa jaiak hasteko

IZASKUN » Ibarako Izaskun Auzoko jaiak Zaldi Lasterketa batekin hasi zituzten atzo. Lehen aldia da antolatzen dutela eta jende asko bildu zen 15 zaldunak ikustera, nahiz eta zaldietako batek ezbehar bat izan zuten.

Gaur 12:00etan herri kirolak izango dira; Ostolaza eta Goenatxo harri-jasotzaileak, Otaño eta Olasagasti aizkolariak eta baita trontzalariak ere. Pintxo eta sagardo dastatzea eta erromeria ere izango dira. **A. IMAZ**

Batel Topaketak Oriari bizitasuna emanaz

Tolosa » Hirukide, Orixe eta Laskorain Ikastolak antolatutako hirugarren Batel Topaketak izan ziren atzo goizean herrian.

ERREDAKZIOA

Giro ederra sortu zen atzo goizean Oriai ibaiaren bazterretan. Zerkautsi inguruan bildu zen jende gehiena, izan ere Oriari barrera Orixe, Hirukidek eta Laskorain Ikastolak antolatutako hirugarren Batel Topaketak ikusteko tokirik aproposena zen hori. Euskal Herriko hamar ikastetxetako batel mistoen

sailkapen estropadak izan ziren lehenik, batxilerr mailan. Ondoren Tolosaldeko ikastetxetako DBH mailako arraunlari gazteen batel erakustaldia izan zen eta bukatzeko, lau batel onenen arteko Tolosaldeko banderaren lehia izan zen.

Irabazleak hauek izan ziren: DBH eta batxilerr mailetan Laskorain Ikastolako batelak irabazi zuten; Hirukidek, berriz, maila berean bigarren egin zuten; DBHn higurrien postua Orixe eraman zuten; eta batxilergoan hirugarren postua Laskorain B-k hirugarren egin zuten.

Lehenek Tolosaldeko Bandera eskuratu zuten eta gainontzekoak

oroigarriekin konformatu behar izan zuten.

Goizean zehar, gainera, ikasleek jarritako ergometroak erabiltzeko aukera izan zen Zerkausan eta gazte asko animatu zen, gainera. Era berean, Tolosaldeko ikastetxe guztietako DBH 1eko ikasleek alai izeneko bi ontzietan ibili ziren Oriari barrera.

Atzoko Batel Topaketa, era berean, gaur 12:00etatik aurrera izango den estropadetarako beroketa modukoa izan zen. Tolosa eta Oriari arteko lehia izango da batetetik, eta bestetik, Emendek eta Aiz-Orratz elkarteen arteko desafioberezia ere izango da ikusgai.



Laskorainek DBH eta batxilerrako lehen postua eskuratu zuten. **R. CALVO**

«Terrorismoaren 22 biktimak» omenduz

Tolosa » Martxoaren 31ko bilkurako mozioari jarraiki, «ETA eta GALek hildako» hainbat pertsona omendu zituzten atzo.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak oraingutxi iragarri bezala «terrorismoaren biktimak» omentzeko ekitaldia burutu zuten atzokoan Aranburu Jauregiko lorategietan. Atzo azaldukoaren arabera, «zehazki 22 biktimak» omenduko dituzte. Hauek diraberen izenak: Antonio Galan, Mariano Criado, Esteban Saez, Adolfo Marinas, Juan Batista Garcia, Andres Varela, Juan Costas, Ignacio



Omenaldia Aranburu Jauregiko lorategietan izan zen. **R. CALVO**

Ibarguchi, Juan Manuel Martinez, Pedro Conrado, Juan Ramon Joya, Patricia Llanillo, Joxean Lasa, Joxi Zabala, Patxi Arin, Juan Carlos Garcia, Jose Juan Pacheco, Patxi Arratibel, Francisco Javier Gomez, Jose Luis Lopez de la calle, Juan Mari Jauregi eta Josu Leonet.

Aranburu Jauregiko lorategietako ekitaldian Jokin Bildarratz Tolosaldeko alkatea izan zen herriko hainbat zinegotzirekin batera. Maixabel Lasa, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimen Harretarako saileko arduraduna, Julio Astudillo, PSOEn batzarkidea eta Iñaki Arriola, Garraio Saileko Rodolfo Ares Herri-zaingo Saileko sailburua eta Mar-

gel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia, ere Tolosan egon ziren.

Lehenik eta behin lorategietan jarritako instalazio artistikoa inauguratu zuten, zeinak «bizitzaren zuhaitza» irudikatu nahi duen. Ondoren, musika eta poesia errezitaldiak izan ziren.

Jokin Bildarratzen agurra

Ekitaldia seiak inguruan hasi zen eta Jokin Bildarratzek eman zion hasiera, bildutakoek irakurritako agur batekin. Ondoren, Arimaz Ganbera Orkestra tolosarraren musika entzun ahal izan zen eta hau eta gero Xabier Leteren poesia bat irakurri zuten. Instalazio artistikoa Hodeitruk abesbatzeko haurrek utzi zuten agerian.

E **Elkarrizketa digitala** info

INAKI IRAZABALBEITIA ▶ Independentistak eta Ezkertiarrak koalizioko hautagaia

«Gure egunerokotasunari eragiten dioten gauza asko erabakitzen dira Europan»

Alkiza ▶ Irakurleen galderak erantzuten aritu da Inaki Irazabalbeitia, ekainaren 7an egingo diren Europako hauteskundeetan inguruan.

ERREDAKZIOA

Independentistak eta Ezkertiarrak koalizioko Euskal Herriko zerrendabura da Inaki Irazabalbeitia alkizarra. Koalizio horretan Aralar alderdia ordezkatzen du Irazabalbeitia. HITZAren erredakzioan izan da irakurleen galderak erantzuten.

Ez al zaizu iruditzen bizi dugun gatazka politiko eta armatuak sobera sufrimendu sortzen duela, honen gainditzea ekar lezakeen indar metaketaren bidean «kondena bai edo ez» galderak hainbesteko garrantzi edukitzeko? Ez al da eraginkorragoa «indarkeria» espresio ezberdinetara ermaten duen gatazkaren konponbidean urratsak ematea, ondorio soila den «indarkeriaren» kondena hutsean geratzea baino? Mirari

Kondena hitza ez dugu totem bihurtu behar. Arazoa da zein hautu egiten den lorpen politikoak eskuratzeko eta hautua garbi dugu guk, bide zibil eta politiko hutsetik soilik etorri behar direla lorpen politikoak. Lorpen politikoak eskuratzeko biolentzia usatzeari utzi behar zaio behin-betiko. «Borroka armatua ez da bidea» argi eta garbi esatea eta praktikatzeko baina ez dugu guk eskatzen. Horrela bakarrik izango da posible abertzaleon zain ezkerreko abertzaleon arteko indar metaketa eta elkarlan estrategikoa, herri honek erabakitzeko eskubidea praktikan jar ahal izan dezan.

Aupa Iñaki! Zer sentitzen du Euskal Herriaren aurka ematen diren erasoen (atxiloketa, ilegalizazio, tortura,...) erantzule nagusia den Rubalcabak zoriarik ematean? Aitziber

Aralarrek garbi dauka alde batetik zein bestetik etortzen diren indarkeria ekintzaguztiak gaituzten dituela eta tartean estatuena, hots, torturak, dispersioa, etab. Guk ez dugu Rubalca zorientzen.

Demagun egun batean Euskal Herriarrok gehiengoan independentiaren alde lerrotzekin dela. Ibarretxe plana edo herri galdeketa legea bezala estatuaren topean aurrean kokatzen garenean zer egingo du zure alderdiak topeak botatzeko? Jon

Sozietate honen guztiaren elkar-

lan, mobilizazio sozial eta desobediencia zibilaren bidetik ibili. Bide baketsu eta demokratikoen bidez Estatuaren jarrera makurratzi. Europara eta NBE jo, izan ere Europan herri batek libreki adierazten duena geldituko duen estaturik ez dago.

Zer moduz moldatzen zara Patxi Zabaletarekin? Eskerrik asko! Amaia

Oso ondo. Alderdikide izateaz gain lagun eta gauza askotan maisu baitut.

Europako instituzioen eta herri-tarren arteko distantzia oso handia da. Abstentzio maila seguru handia izango da... Herriarrek ez du egunerokoa nabaritu Europako legebiltzarran erabakitzen dena, ez? Joxean

Bai, zorritzarrez horrela da. Ez gara konturatzeko Europako (Europako Kontseiluan, Europako Batzordean edo Europako Parlamentuan) onartzen diren irizpideak eta politikak gero ezarriko direla Eusko Legebiltzarraren, Nafarroako Parlamentuaren, Madrilgo Kongresuaren edo Parisko Asanblea Nazionalaren bidez. Kalkulatzen da gure eguneroko bizian eragina duten gauzen % 60tik gora Europan dutela jatorria. Esaterako, orain Gipuzkoan errepideen peajea jar-tzeaz dagoen eztabaida Europako Batasuneko arau batean dute jatorria.

Nolatan elkartu zarete EAekin? Ezkertiarrak al dira ba?

Independentistak eta ezkertiarrak-Europa de los Pueblos koalizioan estatuko nazioetako ezkerreko indar abertzale eta independentistak bildu gara (ERC eta BNG) tartean eta koalizioa osotasunean hartu behar da. E.Ako buru den Sabin Intxaurrega ezkerreko abertzale fin bat denik ez dago ukatzerik. Bestetik, ezkerreko eta tartean ezker abertzalea, espazio politiko zabala da non sentsibilitate desberdinak bildu daitezkeen. Etorkizuneko ezker abertzalea sentsibilitate guztiak bilduta eraiki behar dela uste dut.

Terrorismoaren aurka zaudetela jakina da, hori esan baita zuen-gandik. Baina lehen mundu horren barnean egondako hainbat daude zuekin. Patxi Zabaleta eta abar. Ze sinesgarritasun dauka

jende horrek. Ez ahaztu lehen bai eta orain ez premisa hori erantzunaren amaieran erabili ahal izan-go dela. Begoña

Gu biolentziaren erabilera politikoaren kontra gaude edozein tokitik datorrela ere. Euskal Herrian 2009an biolentzia arma politiko moduan usatzea tokiz kanpo dago, etika aparte utzita, eraginkortasun politiko hutsaren ikuspegitik ere. Patxi Zabaletak eta bera bezala Aralarrean HBtik etorri den jendea sinesgarritasun osoa du biolentziaren erabilera politikoaren salaketan eta horretan urteetako bidea egin dute.

Abertzaleak zaretela esaten du-zue. (Ezker abertzalea zaretela esatea gustu txarreko txistea iruditzen zait). Ze abertzale klasek ez du ezer egiten, bere anai-arrebak erasotutako direnean, legez kanporatuak, espetxeratuak, ... Iñaki

Ez dut zure analisiarekin bat egiten. Begiratu ondo zer egin dugun eta gogoetatu. Aste honetan bertan biktima guztien (tartean presoek) duintasunaren defentsa egiteagatik eta koherente izateagatik Eusko Legebiltzarrean kaltea jasan dugu, komisio baten burua galduta.

Aupa Iñaki. Abiadura Handiko Trenaren inguruan. Aralarrek hori ez dela irtenbidea esan du-zue, eta Europan beste modu batzera egitea posible dela bultzatuko omen duzue. Barkatu baina hori EAri esan al diozue, zuekin batera Europako hauteskundeetan dagoen alderdi horri, bai, zeren eurek AHTaren alde aurkitzen dira. Ai, politikari hauek... Jon

Koalizio bat egiten denean, diferentziak egon daitezke hainbat gaietan aitzazailen artean. Horrela izango ez balitz, ez ginateke koalizioan joango, partidu berean egongo ginateke. Nik segurtatzen dizut, europarlamentaria izango naizenez, esandakoa defendatuko dudala.

Aupa Iñaki. Ez dut uste ongi egin dugunik ERCrekin batera hauteskunde hauean aurkezten. Hemendik PSOE kritikatzeko dugu, gogor gainera, eta gero Madrilen PSOErekin bat egiten duen ERC alderdiarekin elkartzen gara. Aitzakiak aitzaki, ez da bate serioa eta koherentea. Mikel

ERC ezkerreko alderdi independentista den moduan gure parlamentotroan mugitzen da. ERCk, beste indar politiko guztiek bezala,



I. GARCIA

gainerako alderdiekin elkarlanean jardun behar du eta batzuetan gai batzuk bideratu ahal izateko PSOErekin. Ez du, bestetik, errealitate osoa islatzen zuten esaten du-zuna; orain, ez duelako hori egiten. Gainera, ez dira planoak nahastu behar. Estatu mailako politika konkretuak ezin dira nahastu Europarako dugun estrategia batekin gure herriak estatu independentietara lortzeko.

Euskal hiritar bat, Jon Anza, desager-tuta dago. Susmo guztien arabera, bahituta, okerragoa ez zenean. Lasa eta Zabalarri egin ziketienak jakinda, zer egiteko asmoa duzue horren inguruan? Biktima

Gure indarren esku dagoena. Oraingo, bere egoerari buruzko gure kezka agertu dugu.

Zergatik ez diozue bozka Iniziativa Internazionalistari eskatzen? Zer duzu alderdi horren aurka? Ez al zaudete ados hauen ideiekin? Iniziatiba Internazionalista ezkerreko partidu bat denik ezin da uka, baina ez da partidu abertzalea.

Gu ezker abertzalekoak garaberez gure koalizioak ordezkatzen duen ezker abertzale euskaldunari emango diogu botua. Iniziatiba ezkerreko partidu espainola eta erdaldua da.

Zer utziko duzue hemen (Iana, familia...) Europarra joaneko gero?

Koalizioak eurodiputatu bat lortu izan du beti. Orain, BNG ere sartu denez, bigarrena lortzeko aukera izan dezakegu. Lau alderdi nagusien artean banatu dugu eurodiputatua (ek) bertan egingo du(t)en denbora. Aralarri tartar bat egokituko zaio, 2013an edo, eta bertara joango naiz. Nola? Ez dut oraingoz pentsatu. Dena dela, koalizioaren hitzarmenaren arabera Aralarrek 5 urteetan pertsona bat izango du Bruselan txandakako europarlamentarioaren laguntzaile moduan. Pertsona horrek egingo du

gertuko jarraipena eta nirekin koordinatuko neronei bertara joan arte.

Euskal gatazka konpontzeko ez al da eraginkorragoa bertatik lan egitea kanpotik baino?

Gatazka politiko guztietan, Irlandakoan barne, beti egon da kanpoko agenteren bat bideratzaile, birtartekari edo berme-emaile lanak egin dituen. Guk uste dugu euskal gatazkaren kasuan Europako erakundeak izan daitezkeela.

Zergatik da garrantzitsua Europan euskal ahotsa izatea?

Europan gure egunerokotasunari eragiten dioten gauza asko erabakitzen direlako eta Euskal Herriko abertzaleen ikuspegia ere bertan egoteko.

Nola izan zara aukeratua Europako Hauteskundeetarako zerrendan izateko? Zenbat boto behar-ko dira eskainu bakoitzeko?

Aralareko militanteek aukeratu naute hautagai izateko gure burua aurkeztu genuen pertsonen artean.

Europako parlamentuak benetako erabakiak hartzeko orduan ez omen du pisurik. Lurralde indartsuenen ordezkariek egiten dituzten bileretan erabakitzen dituzte gai garrantzitsuak. Zer uste duzue?

Egia da hori neurri batean. Alobatzuetan Parlamentuak du azken hitza eta erabakimena. Gogoratu, 65 lanorduen auzia. Lisboaiko Ituna indarrean jartzen denean Parlamentuaren indarra eta erabakimena handituko da. Gure irudiz, defizit demokratikoa du Europako Parlamentuak eta Europako Batasuneko organo legegile bihurtu beharko luke. Horregatik, besteak beste, ikusten dugu Euskal Herriak estatu independente izan behar duela Europan, politikak ezartzen diren organoetan egoteko besteen maila berean eta erabakietan parte hartzeko.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibaraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

- **Alegia.** Kirol Astearen amaieran, 11:00etan gynkana herriko plazan.
- **Ibarra.** Izaskungo jaiak: 12:00etan herri kirolak; 14:30ean bazkaria; ondoren bertsolariak eta txiste-kontalaria.
- **Leaburu.** XXXI. Kultur Astea: 11:00etatik 20:00etara plazan XXXI. Artisau Azoka, eta 20:00etan plazan dantzaldia.
- **Tolosa.** Emendek eta Aiz Orratz elkarteko beteranoen arteko batel desafioa Oriabaian 12:00etan, Aitz-Orratz elkartearen 75. urtemugan.

Zinema

- **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 17:00etan, *Hannah Montana*; 19:30ean eta 22:00etan *Paraiso travel*. Bihar (ikuslearen eguna), 20:30ean, *Paraiso travel*.
- **Villabona.** Gurea aretoan, gaur: 17:00etan, *Hannah Montana*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
 - **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.
- Bihar**
- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
 - **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
 - **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Arabiar kulturara gerturatuz

VILLABONA • Tolosako Jatorkin etorkinen aldeko elkarteak atzo bukatu zuten kulturartekotasuna sendotzeko Villabonan antolatutako jardunaldiak. Atzokoan kaleko jarduerak izan ziren nagusi herriko plazan: dantza arabiarra, hena tailerra, arabiar gastronomiaren dastaketa, artisautza

arabiarri buruzko erakusketa eta immigrazioaren gainko eztabaida tailerra. Kaleko jarduerak bukatuta guztiak batera joan ziren arabiar afaria egitea; kus-kusa jan zuten arkumearekin eta barazkiekin. Ondoren Agadirreko Husein taldearen kontzertua ere izan zen. R. CALVO

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



ziklo guztiak
euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

Aurrematrikula Ekainak 1etik 12ra

- Fabrikazio Mekanikako Produkzio Programaketa
- Informatika Sistemen Administrazioa
- Administrazio eta Finantzak

- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Metal Eraikuntza

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra